

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Azpiroz Nazabal

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1915-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen 1915ean, baina osaba-izebekin hazi zen Goienetxe baserrian. 8 anai-arrebatan nagusiena zen bera. 7 urte zituela hasi zen eskolan plazan eta 12 urte ingurura arte ibili zen. Betidanik asko gustatu izan zaio irakurtzea. 80 urte ingururekin, etxekoek bultzatuta, bere bizipenak idatzi zituen eta Aita Zabalaren laguntzarekin argitaratu egin zen liburua: "Arbol zarraren kimuak". Geroago gerrako bizipenak ere kaleratu zituen beste liburu batean: "Gogoz kontrako pausoak"; eta, azkenik, nobela bat ere idatzi zuen: "Alkarrentzat jaioak".

Zintak

BRS-006

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Elexpuru, Juan Martin

BRS-007

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

BRS-008

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Zergatik eraman zuten jaiotetxetik osaba-izebekin bizitzera

- **Erref:** BRS-006/003
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:02:27. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ansonen jaio zen, baina Goienetxan bizi izan da bere bizi guztia. Goienetxera noiz eta zergatik eraman zuten bizitzera azaltzen du. Nahiz eta jaiotetxean tifusa egon, berak han ematen zuen egun osoa, senideekin egoteagatik.

2. Eskolan hasterako, izebak hainbat gauza irakatsi

- **Erref:** BRS-006/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Berastegiko eskolan ikasi zuen, eta oinez joaten zen hara. 7 urterekin hasi zen eskolan, baina ordurako izebak irakatsi zizkion zenbait gauza. Aitak eta izebak oso idazkera polita zuten.

3. Eskola garaiko ordutegia

- **Erref:** BRS-006/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eskolara goizean goiz joaten ziren, eta bazkaltzera etxera. Garaiz joan behar izaten zuten etxera. Izebak oso maitea zuen Joxe, eta ez zuen hura zigortzeko jo nahi izaten. Arratsaldean berriro eskolara joaten ziren.

4. Eskola garaiko oroitzapenak

- **Erref:** BRS-006/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Eskolan oso maisu ona izan zuen. Ez zuen eskola egun askotan galdu behar izan, baserriko lanak senideei tokatzen zitzaizkielako normalean. 12-13 urterekin eskola utzi behar izan zuenean, pena hartu zuen. Maisu bakarra zuten, eta zer ikasten zuten azaltzen du. Koadernoak bazuten ariketak egiteko.

Transkripzioa

- Eta eskolan zein zan maixua?
- Don Elias Azpiazu Gorosabel, mundu hontan izandu dan maixuik hobena.
- Bai e? Asko ikasten zenduen orduan? Asko ikasten zenduen berakin?
- Asko... ze esango dizut? Ni eskola garaian itulea... Itulea zer dan ba al dakizu? Behien aurren soroan ta ibiltzea. Bueno, bale, hoi baldin bazan, gelditzen, geldittu arazten niñuen egun batzutan; baiño gaiñekoan ni eskola beti joan behar izaten nun. Anaiak joaten ez bazien, anaiai ardik eta gehio galazten zien. Baiño nik bakar-bakarrak bada're, joan in ber izaten nun. Ta azkeneako, gelditzeko, gelditzeko tenorea etorri zanez, ez dakit hamahiru urte hamabi o zenbat nittun, gelditzeko tenorea etorri zanen, pena nun: ez nun nahi geldittu. Ikasi in nahi nun gehio, baiño... dirue.
- Hamabi urte arte ikasi zendun orduan eskolan?
- Bai, bai, bai.
- Ze ikasten zenduen, danetik? Maixuakin danetik ikasten zenduen?
- Bai, maixu bat, maixu batekin, bakarrakin, guk ez gendun besteik iñor izandu. Ta "sumar, restar", ta "multiplicar", ta "dividir", ta geo problemak'e bai, ta ortografia're pixko bat bai ta... Ez nintzen ikasleiken txarrena izango, maixuak maitte izaten niñun, bai.
- Eta libururik eta erabiltzen zenduten? Libururik erabiltzen zenduten? Liburuak edo koadernoak edo erabiltzen zenduen?
- Bai, koadernoak, han bertan eskribitzeko ta etxen operazioak eta in ber baldin bazuen koadernoak etxea. Ta geo hurrungo egunen maixugana ta maixu beak ikusten zittun danak e? Hark besteei ez zion ezer uzten hortako, bai.
- Eta gero ez ziñan ibili, orduan hamabi urtera arte eskolan...?
- Hamabi-hamahiru nittun, ez dakit, baiño bai, ez, ez, geoztiken etxen lanen, basarri-lana.

5. Umetan baserrian zer ganadu zuten

- **Erref:** BRS-006/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:16:57. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxean ganadua izaten zuten, baina ez asko, baserriaren inguruan belar gutxi baitzegoen. Zer ganadu zuten azaltzen du. Gaur egun oiloek arrautza gehiago jartzen dituzte.

6. Senideen arteko harreman ona

- **Erref:** BRS-006/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:37. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ardirik ez zuten Goienetxan; bai, ordea, jaiotetxean. Senideek elkarrekin egiten zuten lan beti, eta ez dira inoiz haserretu elkarren artean.

Transkripzioa

- Eta ardirik? Ardirik edukitzen zenduen?
- Hemen ez, hemen ez, han bai. Han, han jezten ta dana aitzen nintzen anaiakin joan ta lardaxkan. Jai bazan, astea bazan, anaiak gu denak alkarrekin bizitzen giñen. Gehio esango dizut: hue han, Joakin, han, hirugarrena zan Joakin, han Joakin ta ni hemen. Ta geen denbora guztin lana alkarrekin in degu guk. Hangoa in ber bazan, han; hemengoa in ber baldin bazan, hamen.
- Hemen, beti elkarri lagunduta.
- Bai, alkarrei lagunduta. Ni ta andrea ta umek eta denak. Sekula ez deu hasarreik izandu. Behin o behin xitalkerin bat bai, "kakitzat" o holako zea batzuk bai, baiño gaiñeakuan behin'e ez. Han bezela hemen. Nik lehen'e han nintzenen bezelaxe sarrera dauket, oain pixko bat, Joakin ezkondu zan, ta andrea ta umek eta [...] ez zienak etorri zien eta. Hala're han lehen bezelaxe segittu nun. Geo oain Joakiñen semea ere ezkondu dau, ta hark'e haren semek'e ezkondu dade, ta oain'e neroni oaintxe nola-nahi jungo naiz sukaldea ta... Kuartota ez, lehenao bai kuartota ere, baiño oain kuartota ta ez. Hue honea igual-igual.

7. Auzolanak eta haiek ekarritako aurrerapenak

- **Erref:** BRS-006/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Lehen bideak auzolanean egiten ziren. Egun haietan ardoa ematen zuten lan egitearen truk.</p>

8. Idaztearen atzean dagoen filosofia

- **Erref:** BRS-006/020
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

Idazteari buruz hitz egiten dute. Lehen gurasoek ipuin eta kontu gehiago kontatzen zizkieten seme-alabei. Beren aitari buruz hitz egiten dute.

9. Mutil azkarra izanda, apaiz sartzeko animatzen helduek

- **Erref:** BRS-006/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Behin errainak koaderno eta boligrafoa ekarri zizkion idatz zezan. Joxe oso azkarra izan da beti, eta apaiz sar zedin animatzen zuten batzuek.

Transkripzioa

-Halako baten erraiñek blok bat ekarri zian eta. Blok bakarra ez, boligrafoa ere bai ekarri zian. Nik txikitandiken eskribitzeko afizioa izan dut beti. Kartak eskribitzen eta. Basotako administradore egondu nitzen, eta ni eskribitu errex.

-Hau txiki-txikitandik... Gu zortzi anai-arreba giñen baiño denok baiño azkarraua zan. Maixu zarra, oso ona gendun guk maixue. Sobresaliente para todo. Apaiz egiñarazi nahi zun, apaiz egiñarazi nahi zun.

-Izebak, bai.

-Izebak ez, maixuk.

-Ez. Maixue ta erretorea etorri emen hittuen honea, edozein karrera ikasi nezakela ta. Izoba, apaizak'e bai, gure izobak'e apaiz izatea nahi zin, baiño osabak[...], apaiz itten bada hemengo etxeok galduko dizkik. Ta batere akordatu gabe, nik ez dakit, urtek joan zien eta bate akordatu gabe hemen geldittu nintzen.

-Baakizu zer pasatzen dan, bizimodue beti dijoan heiñen beti abanzatzen juaten da. Lehengo kontuek eta beti berrie, beti berrie sartu itten da eta. Hola juaten die lengo gauza asko apreziatu gabe, desaparezidu holaxe itten die.

10. Erretiroa hartu eta idazten hasteko harra sartu

- **Erref:** BRS-006/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Erretiroa hartu eta gero, oportetara joan zireneko batean, koaderno eta boligrafoa hartu zituen idazten hasteko.</p>

Transkripzioa

- Behiñik behin jubilatu giñen, andrea're urtebete diferentzie, hua azaroan seien jaioa, ni baiño urtebete gerogo. Ta ni azaroan hamabin jaioa ta jubilatu biyak batea jubilatu giñen, ta orduako baten hor ta besten hemen, ermandadeko sekretarioa're nitzten ta dirue're aixeaxe izaten gendun. Lehen aurreneko zeatan nahiko juxtu bizittu giñen, ta Benidorrea hutsen zeuden plazak eta Benidorrea joan giñen beste lagun batekin, hemengo lagun batekin Benidorrea. Ta hurrungo urten Fuengirola joan ber gendula ta Benidorrea joan giñenen baezpa eman in nittun plume eta, zea...
- Koaderno.
- Bai.

11. Liburuak idatzi zituenetik argitaratu artekoa

- **Erref:** BRS-006/024
- **Iraupena:** 0:05:43. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Oporretan zegoela, besteak paseatzera joan bitartean, bera idazten gelditzen zen. Idazten bukatutakoan, errainak idatziak hartu eta mekanografiatzera eraman zituen. Behin Aita Zabala joan zitzaion etxera, eta idatzitakoa irakurtzen uzteko eskatu zion. Gerora, itzuli, eta liburu argitaratzeko proposatu zion. Azkenean, bi liburu argitaratu zituen: bata etxeko kontuei buruzkoa, eta bestea gerrako kontuei buruzkoa.</p>

12. Liburuak idazten eta irakurtzen

- **Erref:** BRS-006/027
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Hirugarren nobela nola idatzi zuen, eta ordura arte zer idazle irakurtzen zituen azaltzen du.</p>

13. Idazten aritu zen garaiko kontuak

- **Erref:** BRS-006/032
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:42:27. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Aita Zabalak Joxeren eskuizkribuak hartu, mekanografiatu eta zuzendu egiten zituen. Idatzi zuen hirugarren liburua nobela izan zen, eta erraza egin zitzaion, lehendik ere asko irakurritakoa baitzen. 80 urte zituela hasi zen idazten.</p>

Transkripzioa

-Orduan Aita Zabalak lagundu, bueno, berak atera zittun (liburuak)?

-Nik eskribittu, ta etortzen zan eskribitzen itten nunen. Hartu ta eaman. Ta nere letratiken hark mekanografiatu itten zittun, ta gero hark letu ta okerrik bazeoan zuzendu. Hoitan danetan izango zien okerrak. Geo handik aurea berak.

-Eta azkena nobela idatzi zendun. Erreza izan zan?

-Bai, emakumea. Lehenau nobelak jangoikoak badaki zenbat letu dittudan; eta haik ikusiz denak, lista ein izenana ta. Bai, bai, errexak. Geo baserriko lana, baserriko gauza bakarra da nobelan, ta nerea, ni bizittu naizena, modue. Ta hortik ez naiz atea. Alperrik ateatzea izango litzake, zeatik ez nuke gauzonik ingo. Proba itteko esan izandu zian Aita Zabalak baiña ez, ez, ez. Ez. Ba berrogei edo berrogeta hamar mille duro eman zizkidaten nik hoik eitteagatik eta.

-Lehenengo liburua idazten hasi ziñen...

-Lehendabizikoa alkarrekin "Gogoan kontrako...", ez, "Arbol zaararen kimuak"

-Eta zenbat urte zuk orduan?

-Nik? Larogei urte.

-Eta nobela idatzi zendunian?

-Gero. Gero. Bai.

14. Gerran soldadu

- **Erref:** BRS-006/035
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:49:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, aita liberala izateagatik asko zigortu zituzten. Gerra garaian Joxe soldadu zen, eta sarjentu nola egin zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Lehen Joakin kontatzen ibili da soldaduskan sarjento izan ziñala.

-Bai.

-Nola izan zan hori?

-Ni, suerte izugarria izandu nun soldaduxkan. Esango dizut ba. Hemen gerra hasi zanen karlistek eta liberalak zien. karlistek bazien, asko. Gure aitte ta liberalak, gutxio, ta gu asko kastigatu giñuen.

-Honi ondasunek, etxe hau berea zun, eta inkautatu're egin zien.

"Incautación de bienes" egin zien. Eta ondo gogoan eukitzen det, hor oin

komedorea daon hortan in zittuen, eta sekretarioai atera zanen, "denak ein al dittuk?", esan zien gure aittek. "Ordenak, ordenak". "Ordenak? Liburu horrek hojak jirauko dizkik, kontu izan zak! Hojak jirauko dizkik ondo!".

-Ni soldau nintzen orduako.

-Honi seittun albistea. Jeneralak pistola emanda bialdu zun hau...

-Ez, ez dek hala.

-Nola da ba?

-Ez, ez. Asturiasen gebitzela, han kuartel jeneralen giñen. Aurrenetk hasita esango dizuet.

-Oin esan sarjento nola in hindduen eta jeneralakin nola enlaze egondu zineten eta.

-Jeneralak estimatue. Demonio! Hotzak egoten zanen, Teruelgo hotzakin sue ein ta nik hankak berotzen nizkion. Ta edozein tokitara. Azkenen Barzelonara genijoazela, Kataluña erori zen aurre hartan mendin gora arkaiztie igo behar eta ezin igo izaten zan. Eta aberekin igotzeik ez. Eta behin baten esan nion: "Mi general, si me quiere dar usted la mano, yo le llevo a usted para arriba". "Hombre providencial. Antes me calentaste los pies y ahora me vas a subir de, hacer de ascensor? Dáme, dáme, probaremos". Eta, jakiñe, nik geldi-geldi tira eitten nion eta. Zaharra ez zan, hirurogei urtekoa, baiño kaxkaldue.

15. Medikuntzako aurrerapenak

- **Erref:** BRS-006/036
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:49:54. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Lehen jendea azkarrago zahartzen zen. Mediku baten esanetan, gerra garaian izan ziren aurrerapen gehien medikuntzan.

Transkripzioa

- Orduako orduan jendea azkarrao zahartzen zan oain baiño askoz'e.
- Bizimodu gogorragoa edo?
- Ez dakit. Geo botikerik ez.
- Gure aitte hirurogeita hamasei urtekin hille deu, baiño oso zahartuta.
- Raroa zan ez?
- Oso zahartuta.
- Klaro, botikarik ez eta...
- Bai, bai, botikak eta're bazien, baiño...
- Ez.
- Txikitatik lan nekatue.
- Don Juanek esan izango zien, gure meikue, izandu zala, oaintxe hille da Donostin, don Juan, bai; ta hark esan izandu zian gerra denboran izandu zala sanidaden adelantoiken gehiena. Probatu in behar "hau hola, hoi hola, ta bestea hola", ta probatu in behar ta gauza asko ondo atera ziela ta belaxe penizilina laixter sortu zien, geroxeo, baiño bai, sortu zien.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com